



Diego Galan • ZINEMALDIKO ZUZENDARIA •

«Gainditu dugu Kursaalari genion beldurra»

Lorea Agirre / Donostia

Diego Galanek hasperen egin ez bukatu du aurtengo Zinemaldia. Urtero legez, atzo ere, epaia eman baino lehen, bukatzeko gogo biziz zegoen. Baina behin egin beharrekoak eginda, pena ere sentitu zuen aurtengo aldia bukatzearekin. Zinemaldiak eman duen mailarekin eta Kursaalak izan duen harrerarekin gustura agertu da. Bere kinielan lau asmatu dituela azaldu digu.

■ **Zinema frantziarrak goitik behe-rea menderatu du aurtengo Zinemaldia. Zer deritzozu horri?**

Bai, egia da, eta ni erabat konforme nago horrekin, uste dudalako oso film frantziar onak bistaratu ditugula

aurten. Dena den, esan beharra daukat edozein palmares onena dela beti, lehiatzen diren film guztiak ere onenak direlako eta, horrenbestez, saritzekoak.

■ **Hala ere, eta Donostian ohiko denez, txistuak entzun dira epaimahairen erabakiaren berri ematean.**

Hori normala da, bai Donostian eta baita gainontzeko zinemaldi guztietan ere. Baina, egia da, Donostian urtero gertatzen da iskanbilatxo hori. Kontua da epaimahaia urtero dela berria, urtero eztabaidatzen duela jende desberdinak, eta urtero txistuak jasotzen dituela.

Ez da posible epaimahai guztiak beti erraztea. Beharbada erratzen direnak txistu egiten dutenak dira. Gogoetarako gai gisa botatzen dut hori.


■ **Egia esan, sari gehienak kritika eta kazetarien gustuko izan dira aurten, bat izan ezik: Aita Sanchez-Gijon aktorearena.**

Horrek bai jaso dituela txistuak.

Ez dut oso ondo ulertzen zergatik. Harrigarria da benetan, zeren sari hori, Sanchez-Gijon aktore onentzat jotzen duena, izan da epaimahaiak aho batez hartu duen erabaki bakarra. Beste epai guztietan eztabaidak eta desadostasunak izan dira, baina Sanchez-

Kursaala

■ ■ ■ «Uste dut jendea errazago hurbildu dela Kursaalera, iaz arte Victoria Eugenia antzokira baino. Alde horretatik, uste dut Kursaal askoz demokratikoagoa dela»



EDURNE KOCH

Gijonen kasuan, hasieratik gainera, epaimahaiko kide guztiak bat etorri dira.

■ **Ikusleen erantzuna badi-rudi benetan ona izan dela.**

Bai, hala da. Oraintxe jaso ditut behin-behineko datuak, eta zera diote: aurten 180.000 lagun etorri dira Zinemaldira, iaz baino 30.000 gehiago.

■ **Beraz, jendeari gustatu zaio egitaraua.**

Hainbat filmek guk espero baino askoz harrera hobea izan dute, eta horrek harritu egin gaitu. Gure gustukoek zirenek ere oso ondo hartu ditu jendeak.

■ **Egitarauaz gainera, badi-**

rudi Kursaalak zerikusirik izan duela horretan.

Bai, gu beldurrez ginen Zinemaldia hasi baino lehen, egunero-egunero 1.500 aulkiko auditorioa ez ote genuen beteko. Baina izugarria izan da. Pentsa, bigarren egunean, arratsaldeko zazpietan eta film txinatar bat botatzen zela, bete egin zen auditorio nagusia. Hor beldur guztiak joan zitzaizkigun. Areago, uste dut jendea errazago hurbildu dela Kursaalera, iaz arte Victoria Eugenia antzokira baino. Victoria Eugeniak halako errespetu bat ematen zuen, estiloagatik agian. Alde horretatik, uste dut Kursaal askoz

demokratikoagoa dela. Jendeak eraikina bere egin du. Kursaal jendea erakartzeko benetan faktore eragingarria izan da. Gainditu dugu Kursaalari genion beldurra.

■ **Hurrengo ekitaldia prestatzen hasiak izango zarete honezkeru.**

Bai, aspaldi hasi ginen. Dagoeneko atzera begiratu batzuk hasi gara prestatzen.

■ **Ezer aurrera dezakezu?**

Eta iritziz aldatzen badugu, zer? Esan dezakedan gauza bakarra da 2000. urteko ekitaldirako sail bati dagokion liburu bat jada inprentan dagoela.

Zitzu bizian

Atrebentziaz idatziko dut atrebentziarik ez dela izan aurtengo Zinemaldian. Ez pantailetan, ez argitaratu diren izkribuetan. Inor ez da ezertara ausartu. Ez egileak, ez egileek egindakoa epaitzen dutenak. Ezta egileen saiok aukeratzen dituztenak ere. Estiloz, trazaz, moldeaz, helburuz, oinarriz, modaz pasata, edadean aurreraturik diren pelikulak ikusi ditugu. Onak izan, txarrak izan, bat ere ez da ezertara ausartu.

Atrebentziaz diot hemen inor ez dela ezer berriaren bila etorri. Goraipatu izan diren filmek tradiziozko, betiko, ohiturako ildotik egi-

ten zuten beren bidea. Horrenbeste maitatu izan den *Cuando vuelvas a mi lado* hori luxuzko lan faltsua zen; antzerki eta zinemaren trukerik zaharkituenak darabiltza... Zinemaldi batera zozaz, ez zozaz *La lengua de las mariposas* bezalako azukrezko pitxiaren bila, desioz, grinaz, baizik eta erraiak sutan eta burua borborka uzten dizkizuten irudien, hitzen, segizioan.

Atrebentziaz...

BEGOÑA DEL TESO

Horrelakorik, ordea, ez dugu ba aurkitu ez Sail Ofizialean, ez, apenas, Zabaltegin. Ezta ikusleengan ere. *Crazy in Alabama* ikusteko aretoak mukuru bete zituzten horiek non zeuden *Tuvalu* estrainioa estrenatu zelarik? Zergatik entzun da horren zabal, horren ozenki Stahlek egiten zituen pelikulen bezalakorik ez dela? Zergatik maitatzen dugu hainbeste kasik dokumental hutsa den *Ça commen-*

ce aujourd'hui, joandako garaietan hain sutsu aldarrikatzen genituen askatasuna, elkartasuna, solidartatea joandako garaietako hitz berdinekin exijitzen dituen? Zergatik epaile gazteek hartutako erabakian ez da izan gaztaroak izan behar duen atrebentziaren isla? *Agnes Browne* eder horri emandako sariak edade horren gozotasuna adierazten du, bai, baina ez ausardia.

Nola liteke 1972an Ivan Zuluetak filmaturiko *Frank Stein* eta *Masaje* izatea 1999. urteko Zinemaldi honetako imajina probokatzailerak? Nola ez dira egileak, aukeratzailerak, idazleak, epaileak, lotsaren lotsaz sentitu?